

Determinatzaileak: mugatzaileak

Gogoratu :

Determinatzaileak izen arruntak eta izenondoak zehazten dituzte. **Determinatzaile mugatzaileak** bi motatakoak dira:

- **Artikuluak:** -a, -ak, -ek.
- **Erakusleak:** hau, hori, hura, hauek...

1. Eraman esaldietako artikuluak lauki **gorrira** eta erakusleak lauki **urdinera**.

Gamelu horrek oasiko ur guztia edan zuen.		
Sukaldariak barazkiak, haragia eta arraina erosi ditu merkatuan.		
Baserri hura nire aitonak erosi zuen oso aspaldi		
Neska haiek txangoa egingo dute mendira.		
Atzo, apal hori liburuz beteta zegoen; gaur, liburuak desagertu egin dira.		
Naiararen herria muino hura igarota dago.		

2. Osatu, artikulatu egokiak jarritz.

- A zer pare____, karakol____ eta bare____ !
- Liburutegi____ liburu____ lasai eta patxadaz irakurtzeko leku____ da.
- Lagun____ esan didate abenturazko film____ ikusiko dugula zineman.
- Neska-mutil guzti____ egin dituzte etxerako lan____.
- Behi____ belarra jaten dute; katu____, ordea, nahiago dute esne____.
- Gaur, gure herriko jai____ hasi dira, eta ume guzti____ kalean daude!

3. Zuzendu eta berridatzi.

- Zuhaitz horietako hosto hauek gorriak da.
- _____
- Itziarren ondoan esertzen den ikasle haiek Etxahun du izena.
- _____
- Hango kalean ikusi ditugun gizon eder hori aktore famatuak dira.
- _____
- Auzoko elizako kanpai honek ez dute soinurik ateratzen.
- _____